



Marie-Jo et ses deux amours

Zuzendaria: Robert Guediguian. **Aktoreak:** Ariane Ascaride, Gerard Meylan, Jean-Pierre Darroussin, **Iraupena:** 124 minutu. **Jatorria:** Frantzia. **Estreinaldia:** Gaur (IEH).

La ville est tranquille bere aurreko lanean drama gogorren eremuan sartu ondoren, Robert Guediguian drama eta komedia uztartzen dituen *Marie-Jo et ses deux amours* (Marie-Jo eta bere bi maitasunak) filmarekin itzuli da. Marie-Jo (Ariane Ascaride) heldutasunera iritsi da, eta bere bizitzan dena izan diren bi gizonen arteko hautua egin beharko du. Ohi bezala, Robert Guediguianek Marseilla jaio-terrian kokatu du bere azken filma, eta bere ohiko aktoreekin egin du lan (Ascaride, Gerard Meylan, Jean-Pierre Darroussin...).



We were soldiers

Zuzendaria eta gidolaria: Randall Wallace. **Aktoreak:** Mel Gibson, Madeleine Stowe, Greg Kinnear, Sam Elliott. **Iraupena:** 138 minutu. **Jatorria:** AEB. **Estreinaldia:** 2002-06-28 (HEH)

Harol G. Moore koronelak eta Joseph L. Gallowayk gerra korrespondentelak idatzitako *We were soldiers once and young best-seller*-a dago Randall Wallacek (*The man in the iron mask*) zuzendu duen film honen oinarrian. Vietnamgo gerran dago kokatua, eta AEBetako soldadu batzuen eta vietnamdarren arteko borroka latz bat kontatzen du. 1965eko azaroaren 14an Hal Moore eta bere soldaduak Vietnamera iritsi ziren, eta han bi mila soldadu vietnamdar aurkitu zituzten parez pare.

Resident evil

Milla Jovovich zombien etxean

Edozein eleberri bezain istorio eragile bihurtu dira azken urteotan bideo jokoak. Zinema ekoiztetxeek altxor bat aurkitu dute PC eta Playstationetan, eta jokoak film bihurtu daitezkeela ondorioztatu dute. *Resident evil*, Paul Andersonen zinemara eramane duen jokoak, zombiak ekarri ditu berriro bizitzara. Milla Jovovichek aurre egin beharko die.

Zombien mundua ondo eza-gutzen duen zinemagile batek arduratu behar zuen hasieran *Resident evil* zinemara moldatzeaz: George A. Romerok, alegia. Zonbi generoan ikur den *Night of the living dead* (68) mitikoaren egilea da estatubatuarra, eta kontuan izanik Yoshiki Okamoto jokoaren sortzailea Romeroren mireslea dela, ez zirudien aukera txarra. Romerok berak idatzi zuen filmerako gidoi bat, baina ez ei zen filmaren arduradun ekonomikoaren oso gustukoa izan. Antza denez, zuzendari beteranora ez zen gai izan arduradunek filmerako nahi zuten itxura birtuala sortzeko. Bernd Eichinger ekoizleak azaldu duenez, «film beldurgarri bezain fantastikoa» egin nahi zuten, gore estetikatik urrunduz: «Zombien generoa ikuspegi moderno, *high-tech*, batetik bultzatu nahi genuen, orain arte maila eskaseko film ugari sortu dituelako».

Resident evil-ek, bideo joko orok bezala, oztopo eta etsai ugari aurre egin behar dioten hainbat lagun ditu protagonista. Umbrella deituriko erakundearen laborategian istripu bat gertatu da; eta horren eraginez, ondorio larriak ekarriko dituen birus bat zabaldu da. Izan ere, han ziharduten zientzialariak hil egingo ditu lehendabizi; baina ondoren, zonbi bihurtuta, berpiztu egingo ditu. Militar talde bat bertara abiatuko da zer gertatu den jakin guran, eta han, aurre egin beharko die bizirik dauden hildakoei, ordenagailu arriskutsuei eta mutante bel-



durgarriei. Bideo jokoek planteatzen duten ohiko istorio bat zinemara bihurtua, alegia.

Ekoizleek filmari eman nahi zioten kutsua zein zen jakinda, Paul Anderson zuzendariaren aukeraketak erabat logikoa ematen du. Zinemagile ingeles gazte honek oihartzun handia lortu zuen *Shopping* (94) bere lehenengo film independentearekin; baina *Mortal kombat* bere bigarren filma bideo joko ospetsuaren moldaketa zen.

Andersonen beldurrezko teknothriller bat egin du, zombien zinemari ez ezik, James Cameronen *Aliens*, *Mimic* eta *Matrix* filmei aipamen egiten diena. Alde horretatik, akzioa kutsu ziberpunk eta klaustrofobiko batekin jantzita dator *Resident evil*-en.

Sigourney Weaverren bidean

Urteetan gizonen esparrua izan da akziozko zinema, baina badirudi, apurka-apurka bada ere, emakumeak ere hasi direla zinema mota horretan leku txiki bat lortzen. Sigourney Weaverrek ere duen bat finkatu zuen

Hildakoak bizirik

Ez du, beharbada, banpiroak denborarekin lortu duen *glamour*-a, baina zombiak ere —bizirik agertzen zaigun hildakoa, Haitiko kultur tradizioan— bide luzea egin du zeluloidean. 1968an George A. Romerok *Night of the living dead* filmatu zuenean gaurkotu egin zuen zombia, baina haren aurretik izan ziren gai bera jorratu zuten hainbat lan maitagarri. Gaur egun ahantzia dagoen Victor Halperinek Bela Lugosi mitikoa zuzendu zuen *White zombie* filmean (32), eta Jacques Tourneur handiak *I walked with a zombie*, poesiaz beteriko film miragarria taxutu zuen 1943an; baina, ondoren, eta 60ko hamarkadara arte, desagertu egin zen zombia zinema irudietatik. Romerok *Night of the living dead* egin zuenean, zombi film modernoaren oinarriak finkatu zituen. Romerok berak *Dawn of the dead / Zombie* (79) eta *Day of the dead* (85) filmak egin zituen, baina azken urteotan beldurrezko zinema italiarra izan da zombien mundura gehien hurbildu dena. Lucio Fulci zuzendariak, adibidez, behin baino gehiagotan jo du gaira (*Zombie 2*, *Quella villa accanto al cimitero*...)

aginduetara *The fifth element* eta *Jeanne D'Arc* egin, eta hainbat film independentetan parte hartu ondoren (*The Million dollar hotel*, *The claim*...), Hollywoodeko akzio zinemaren indarrez sartu da Jovovich; eta gainera, berak ere hor ikusten du bere burua: «Neure burua Sigourney Weaver gazte bat bezala ikusten dut, eta hori izan da *Resident evil* egiteko arrazoietakoa bat. Urte batzuk lehenago jaio izan banintz, ez zitzaidan inporta izango *Alien*-en protagonista izatea».

Zuzendaria: Paul Anderson. **Gidoia:** Paul Anderson. **Aktoreak:** Milla Jovovich, Michelle Rodriguez, Eric Mabius, James Purefoy, Martin Krewes, Colin Salmon. **Iraupena:** 100 minutu.

BRIXTON RECORDS-ek AURKEZTEN DU

the SLACKERS

N.Y.C. + MOON HOP

UZTAILAK 3, ASTEAZKENA 21:30etan
BILBOKO KAFE ANTZOKIAN

AURREALMENTA: 10 € • TAKILLA: 12 €
(POWER RECORDS, RASTA SHOP, LIKINIANG TOPAGUNA, KAFE ANTZOKIA, BRIXTON)

new YORK SKA JAZZ ENSEMBLE
VIERNES 19 DE JULIO A LAS 22:30 • KAFE ANTZOKIA • ONDARROA